

Testua: **OLI**

Ilustrazioak: **MARC TAEGER**

Itzulpena: **MANU LÓPEZ GASENI**

Kartoizko 26 orrialde koloretan. 19x19 cm.

Eskuragarria honako hizkuntza hauetan:

- Euskara: "Arturo". Faktoria K-Pamiela
ISBN 978-84-7681-677-6
- Gaztelania: "Arturo". Faktoria K
ISBN 978-84-15250-12-8
- Galegoa: "Artur". Faktoria K
ISBN 978-84-15250-11-1
- Katalanera: "Artur". Faktoria K-Hipòtesi
ISBN 978-84-15170-07-5
- Portugesara: "Artur". Kalandraka. Livros para sonhar
ISBN 978-989-8205-65-0
- Italiera: "Arturo". Kalandraka. Libri per sognare
ISBN 978-88-95933-29-0
- Ingelesa: "Arthur". Faktoria K
ISBN 978-84-15250-14-2

Salneurria: 10 €

ARTURO

**Arturo txittoa deseroso zegoen arrautzaren barruan.
Oso hazita zegoen, eta gelatxo hura txikia zitzaion...**

Oskolaren barruan, Arturo salbu sentitzen zen, baina oso estu zegoen. Jadanik ez zuen tokirik horma zuriko gelatxo epel hartan, eta handik ateratzea beste erremediorik ez zitzaion geratzen. Orduan ohartu zen mundu erraldoi eta ezezagun bateko zati txiki batean bizi zela, orain begi harriztuen aurrean zabaltzen zitzaion mundua.

Arturo aurre-irakurle eta lehen irakurleentzako kartoi gogorreko liburua da, jaioberrien hauskortasunaz aritzen dena: zer sentitzen duten, nola antzematen duten inguru berria, dituzten beldur eta segurtasun ezak. Protagonistaren figurak, inguruaren aurrean babesgabe eta ikasbide luzea aurretik duela, samurtasuna eta babes sena pizten ditu irakurle helduengan.

Testu erraza eta sentibera, marra lodiko, kolore biziko eta forma eskematikodun ilustrazioez osatzen da, hala irakurle txikiaren identifikazioa eta ulermena erraztuz.

XOSÉ MANUEL GONZÁLEZ (Cangas, Galizia, 1960)

Haur hezkuntzako irakaslea, idazlea eta haur literaturako aditua. KALANDRAKAKo Siete Leguas bildumako zuzendarikidea da, eta argitaletxe horretan bertan argitaratuak ditu "Once damas atrevidas" eta "El pirata pata de lata" albumak. Xerais, Galaxia eta Ir Indo argitaletxeekin ere lankidetzan aritu izan da.

MARC TAEGER (Berna, Suitza, 1963)

Milán, Nápoles, Schriesheim eta Lisboa hirietan bizi izan da. 1975ean Bartzelonan kokatu zen, eta bertan diseinu grafikoa ikasi zuen. Gaur egun Galizian bizi da, diseinatzaile eta ilustratzaile lanean diharduela. Bere lana hainbat arlotan garatu du, hala nola, animazioan, margolaritzan, eskulturan eta arte grafikoan, eta Luxemburgo, Alemania, Txina, Espainia, Frantzia eta Costa Rica-n erakutsi izan du, besteak beste. Daniel Gil 2005 Saria jaso zuen "La verdadera historia de Caperucita" liburuagatik, KALANDRAKAK argitaratua. Argitaletxe horretan, "Aquiles el puntito", "Garbancito" eta "Tic-tac" ere ilustratu ditu. FAKTORIA K etxeko narratiba bildumaren irudi grafikoaren diseinatzailea da.



- **Gaiak:** jaioberrien hauskortasuna
- **Gomendatutako adina:** aurre-irakurleak eta lehen irakurleak
- **Alderdi azpimarragarriak:** "Once damas atrevidas" eta "El pirata pata de lata" albumen egile berarena; "La verdadera historia de Caperucita", "Aquiles el puntito", "Garbancito" eta "Tic-tac" albumen ilustratzaile berarena; bizitzako lehen urratsak, ikasbidea; babes sena; ilustrazio adierazkor eta eskematikoak